

PRENTSAURREKOA TELE 5 ETA EL MUNDOK ATERATAKO ERREPORTAIK SALATZEKO



Xabier Balerdi azalpenak ematen atzo, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Delegazioan, Donostian.

XABIER BALERDI (URUMEA IKASTOLAKO ZUZENDARIA):

“Publikoki salatu nahi dugu jasan dugun engainua eta manipulazioa”

■ Otsailean joan ziren Urumea eta Errenteriako Langaitz ikastoletara, guraso izenean zijoazten bi kazetari kamara ezkutuarekin ■ Astelehenean bota dituzte Tele 5n orduan hartutako irudiak.

‘LA cara oculta de Euskadi’ izenburuarekin Euskal Herriari buruzko erreportaia bat bota berri dute Tele 5n, El Mundo telebistak egin. El Mundo egunkariak ere erreportaia bat aterea du horren bueltan. Xabier Balerdi Urumeako zuzendaria da berak jakin gabe grabatu dutenetako bat, eta atzo prentsaurrean hitz egin zuen hezkuntza munduko hainbat arduradunekin batean; besteak beste, Angeles Iztueta Hezkuntza Kontseilaria, Andoni Lizeaga Sarean taldeko zuzendaria, Ana Izagirre Guraso Elkartearen lehendakaria eta Ritxar Maritxalar Langaitz ikastolako zuzendaria.

“Zerbait susmagarria”

Urumeako zuzendariaren bulegoko irudiak, joan den otsailean grabatuak dira. Balerdik azaldu duenez, bikote bat joan zitzaion bulegora, 6 urteko semea ikastolan matrikulatu nahi zutelara eta informazio eske. Esan zioten aita euskalduna zela eta Madril bizi arren semeak bazekiela euskeraz.

Balerdik prentsaurrean azal-

du zuenez, hezkuntza-proiektuaren inguruan argibideak eman zizkion bikoteari, baina, bikoteak hitza moztu eta norabide bakarrek galderak egiten hasi zen, “helburu bakarrekin: salduko zuen titular bat aurkitzea”. Balerdik susmo txarra hartu omen zion eta “erantzunak ekilibrista baten moduan eman nituen, bai bainekien egindako edozein adierazpen euren interesetara makurtuko zutelara, tamalez, erreportaian frogatu den moduan”.

Xabier Balerdik ikastolako guraso, ikasle eta irakasleen izenean “jasandako engainua eta manipulazioa” salatu zituen, eta erreportaiak, bere txarrean, bi gauza lortu dituela ere esan zuen: eguneroko lanaren sinesgarritasuna sendotzea eta gurasoek proiektuarekiko atxikimendua azaltzea.

Hezkuntza Kontseilaria gogor Angeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilariak hitz gogorrak egin zituen erreportaiaren kontra. Esan zuen Euskal Herri guztiari irain egin diotela: “guraso, irakasle, abertzale, ez abertzale, kontseilari eta Euskal hezkuntza on baten alde lanean ari garen guztion kontra egin dute. Hau jasan ezina da eta erantzun bat merezi du”. Iztuetak bere babesa eta konfidantza azaldu zien Hezkuntza sistemari eta irakaslegoari eta Hezkuntza sistema oso ona daukagula esan zuen. Erreportaiaren arduradunen kontra kereila bat sartzea aztertzen ari direla ere esan zuen.

Ordezkarri guztiak nabarmendu zuten, gertatuak gertatu, ikastetxeetako ateak zabalik daudela eta ezer ja-

kin nahi duena esku zabalik hartuko dutela, zer gorderik ez daukatelako.

Urumeako Klaustroa: “Euskal irakaskuntzan lanean ari garenon lana zalantzan jarri nahi izan dute”

Urumeako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Klaustroak Tele 5 eta El Mundon emandako “informazio interesatua eta manipulatu” salatu dute, Hernaniko Kronikari bidalitako prentsa ohar batean. Diote, Urumea Ikastolako Hezkuntza Proiektua zikintzeaz gain, euskal irakaskuntzan lanean ari direnen lana zalantzan jarri nahi izan dutela. Hezkuntza proiektua inork ezagutu nahi baldin badu ikastolako ateak zabalik daudela nabarmendu dute eta Xabier Balerdi zuzendariari babes osoa azaldu diote. □

MUSIKA ASTEA

Rock kontzertua gaur: Germen, Hartu arte, Izaera eta Biok

MUSIKA Astea gaur sartuko da bete-betean bere ekitaldi fuertee-netan. Gaurtik igandera bitartean hiru kontzertu izango dira Tilosetan. Gaur gaueko 20:00etan diapositiba emanaldia izango da Garin tabernan, eta 22:00etan kontzertua Tilosetan. *Germen* talde hernaniarrarekin batera, *Biok*, *Hartu arte* eta *Izaera* taldeak arituko dira. Astintzen taldeak antolatzen du Musika Astea eta taldeak Tilosetan txozna bat jarriko du.

Bestalde, bihar beste kontzertua izango da gauean: *Leher*, *Obligaciones*, *Borroka* eta *Bosco el toscó y su puta banda*. Igande arratsaldean, berriz, *Black Jiko* hernaniarrak, *The Basque Country pharaons* eta *Bulma*. □

ETXERAT ELKARTEA

Enkartelada gaur errepresaliatuen alde

ETXERAT elkarteak enkartelada egingo du gaur ‘Errepresaliatu guztiak etxera’ lemapean. Ekitaldia Gudariaren plazatik aterako da 20:00etan. Etxeratek hernaniar guztiak gonbidatu ditu giza eskubideak aldarrikatzera. □

ZINEA BITERIN

‘Al otro lado de la cama’ pelikula gaur, 22:30etan

BITERIKO zinean Emilio Lopez Lazaroren *Al otro lado de la cama* pelikula jarriko dute gaur. Filmea komedia bat da eta maitasun, sexu, amikade eta gezur joko eta jolas bat da. Bi bikoteren istorioa da: Sonia eta Javier, eta Paula eta Pedro. Halakoren batean, gauzak aldatzen hasten dira eta... Gaur, larunbatean eta igandean botako dute. Umeentzat, berriz, *Asterix eta Obelix* izango da, larunbat eta igandean. □

BIKAIN

OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti
Bikain...



Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI



GARAYAR AUTOBUSAK



AUTOBUS ZERBITZUA
LINEA ERREGULARRAK
Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-
Urnieta-Andoain
ZERBITZU DISKREZIONALAK
(ESKOLARRAK)

Jauregi bailara 17 - Tel: 943 556 658 - 943 556 662
Faxa 943 331 208 - e-maila: mgarayar@facilnet.es
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



ADARRA

ETXE TRESNAK S.A.

Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



Elizatxo elkarteko bazkideak iaz, urteurren afarian.

Elizatxo elkarteak Mus eta Tute txapelketetako sariak banatuko ditu gaur, urteurreneko afarian

■ Mus txapelketan Miguel-Manolo izan dira irabazleak eta Tutean, Valentin-Astiz
■ Afaria iluntzeko 20:30etan da eta sariak afalondan banatuko dira.

ELIZATXO elkarteak gaur gauean egingo du urteurreneko afaria. Aurten 32 urte bete-ko dira elkartea zabaldu zela. Elizatxoko ordezkariak Kronikari adierazi diotenez Tute eta Mus txapelketako sariak gaur afalondan banatuko dituzte, urtero bezela. Gaur egunean 72 bazkide daude Elizatxon eta Inazio Goñi da elkarteko lehendakari.

Elizatxoko 30garren mus

txapelketa jokatu da aurten, eta Tutean 16garrena. Denera, 15 bikote inguru atera dira eta honako hauek izan dira irabazleak: musean, Miguel-Angulo txapeldun eta Antxon-Loren bigarren; hirugarren Goikoetxea anaiak gelditu dira eta laugarren Vita-Goñi. Tutean, Valentin-Astiz gelditu dira aurrena eta Javi-Felix bigarren; hirugarren, Patxi-Jose Luis izan dira eta laugarren Silvino-Pablo.

Elizatxo elkarteak ekitaldi hori antolatzen lagundu duten kolaboratzaileak eskertu ditu: Decoraciones Altuna, Bombas MAYR, Etxeberria Anaiak igeltseroak, Rioja taberna, Goieko garbitasunak, Coto bodogak, Amstel zerbeza, Cordoniu, Berasategi kafeak, Bodogas Marin Palacios Anaiak, Zabala okindegia, Insalus, Bixente Goikoetxea eta Ibañez Alimentazioa. □

KIXKIA SAGARDOZALE TALDEA -SAGARDO TXAPELKETA

Elorrabikoa juzgatu dute sagardorik onena

■ Hemeretzi sagardotegik hartu dute parte; hiru Hernanikoak.



Kixkia taldeko kideak, sagardogileak eta sukaldariak, astezkenean, bazkal ondoan.

HERNANI eta Astigarraga inguruko sagardozale eta sagardogile talde batek osatzen dute Kixkia taldea. Urtero sagardo txapelketa egiten dute eta aurtengoaren finala astezkenean jokatu zen, Astigarragako Gure Izarra elkartearen.

Elorrabikoa onena
Aurtengo txapelketan 19 sagardotegik hartu dute parte. Finalera 6 lehenengoak pasa dira: Elorrabikoa, Gaztañaga, Rezola, Lizeaga, Petritegi eta Eizmendi. Aurtengo onena Elorrabikoa juzgatu dute epaileek,

bigarrena Gaztañaga eta hirugarrena Rezola. Kixkia taldeak sagardogile talde bat ere gonbidatu zuen finalera, eta gauzak nola diren, puntuazioa aparteko mahai batean jarri bazuten ere, bi taldeen puntuazioak koinziditu egin zuen. □

■ ERRUGBIA

Hernani bihar hasiko da Ligan

■ Hernani A-k Caja Cantabriaren kontra jokatuko du eguerdiko 12:30etan, Landaren.

HERNANIKO bi errugbi taldek larunbatean hasiko dituzte bakoitzak bere ligak. Hernani A-k Caja Cantabriaren kontra jokatuko du Liga Nazionaleko partidua. Partidu aurretik, Juantxo Rodriguez Errugbi Elkarteko lehendakariak plaka bat emango die Etxeberriko auzotarrei "bertako neska mutilek gure elkar-

tean aspaldidanik izan duten errugbi zaletasuna gogoratu eta eskertzeko". Partidu ondoren Etxeberriko jokalaririk izan-kan Landaren hamaiketakoak egitera gonbidatuta daude.

Hernani B-k Abanton jokatuko du Euskal Ligako aurreneko partidua, Abanto Minero taldearen aurka. Partidua 12:00etan da. □

■ HITZ BITAN

✓ ERREMONTA

Lutoa erremontean. Isabel Apezetxea Lizaso, Koteto Ezkurraren emaztea hil zen atzo goizean eta erremontea lutoz jantzi da. Isabel Apezetxeak bolada luzea zeramakien gaixo eta irailaren 27an ingresatu zuten ospitalean, Ezkurra lesionatu eta hurrengo egunean. Isabel Apezetxea, Lizaso erremontistaren lehenegusua propioa ere bazen. Euskal Jai eta Galarreta enpresek doluminak eman dizkiote senitarteko guztiei eta pelotariak krespoi beltzekin jokatu zuten atzo Galarretako jaialdian.

✓ NERE BORDA PARKEA

Parkea berritzeko proiektua azalduko da gaur. Udalak onartu du Nere Borda parkea berritu eta egokitzeko proiektua, eta gaur arratsaldean aurkeztuko du jende aurrean. Aurkezpenean Manuel Fraile Hirigintza zinegotziak gain, hor izango dira Imanol Jimenez arkitektoa eta EKOS enpresako ordezkaria ere. Aurkezpena arratsaldeko 19:00etan egingo da Udaletxeko Pleno aretoan. Udalak interesa duten guztiak ekitaldira gonbidatu ditu. Aurkezpen bukaeran, Manuel Frailek Atsegindegin lurrazpiko aparkalekuak jartzeko proiektuari buruzko detaileak ere ematekoak ditu.

✓ SAGARDO TXAPELKETA

Peña Otañokoa gaur. Peña Otaño elkarteak aurreneko Sagardo txapelketa egingo du gaur. Txapelketan elkartearen bertan dauden 7 sagardoak hartuko dute parte: Otsuenea, Petritegi, Zabala, Aburuza, Zelaia, Barkaiztegi eta Lizeaga.

Elur-Txorikoa azaroaren 2an. Elur-Txoriko sagardo txapelketarako izen ematea zabalik dago bazkideentzat urriaren 20 arte. Urriaren 21etik 25era zabalduko da bazkide ez direnentzat.

✓ PELOTA

Erdozio eta Huizik partidua gaur Eibarren. Erdozio eta Huizik kadete mailako binakako partidua jokatuko dute gaur Eibarren kontra, 20:00etan. Bihar bost partiduko jokatuko dira Hernanin.

✓ OKERRAK ZUZEN

Espetxeratuen aldeko mendi martxa, igandean. "NOIZKO?" eguna girotzeko, kondenaen 3/4ak beteak dituzten Hernaniko presoek etxetan barrena mendi martxa egingo da igandean 09:00etan abiatuta. Ez da izango larunbatean, atzoko Kronikak zekarkien bezala. Gero bazkaria, Ereñotzuko Ur-Mia elkartearen. Bazkari txartelak salgai: Oindi, Txili eta Garinen. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 006666
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
▶ Gaez: Ansa
Andoain. Ondarreta
☎ 943 591302

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai, Kardaberaz kalean. Pana parkerako bistak, 2 gela, sala, sukaldaria, 2 komun eta aparkatzeko plaza erreserbatuta. ☎ 646 47 02 58

Klase partikularrak emango nituzke: elektronikoa (digitala eta analogikoa) elektrizitatea, Neumatika, Hidraulika... ☎ 646 83 27 52